



OINARRIZKO EKINTZAK

Hauek dira gure enpresarako iruditu zaigun oinarrizko ekintzak:

Gure enpresako materiala, guk kalean jarritako kontenedoretan jendeak algodoiez egindako produktuak botako ditu. Ondoren algodoiez egindako produktuak jasoko ditugu eta lantegira eramango ditugu. Han, produktuak garbitu, moztu eta produktu berriak egingo ditugu. Ez dugu lanik delegatuko, gure produkzioa ez da oso altua eta norbait azpi kontratatzea garestiegia izango litzateke.

Lehenengo pausua: kontenedoreak jartzea da. Udaletxeari baimena eskatuko diogu, eta zabor kontenedoreak dauden lekuen ondoan gure kontenedoreak jarriko ditugu.

Bigarren pausua: astean bitan furgoneta batekin arropak jasoko ditugu eta lantegira eramango ditugu. Lantegian, arropa horiek garbigailu batzuetan garbituko ditugu.

Hirugarren pausua: arropa moztuko dugu, koloreetan sailkatuko dugu eta tela zati horiekin salduko ditugun produktuak josi egingo ditugu.

Laugarren pausua: produktuak dendara eramango ditugu eta bertan edo internet bidez salduko ditugu.

Aurrekusi dugun arazo larriena gure hornitzailea da, guk ez dugulako erabakitzen zenbat arropa edukiko dugun hilabetero, hau gendearen esku dagoelako, ezin dugulako gendeak botatzen duen arropa kontrolatu. Arazo honek gure produkzioa mantxotuko luke gure produktua ekoizteko produktua ez baizagu iristen, ez dugulako izango materiala gure produktua egiteko. Baina gure enpresaren kalkulei esker jendeak hilabetero nahikoa arropa botatzen du gure produkzioa aurrera eraman ahal

izateko.

